

2013ko
Maiatza



MAIATZAK **4**

**Ikurriñari
omenaldia**

apirilak 27 - ekaina 1

I. Sagastiak loretan ospakizuna

Sagarrondoaren loraldiaren gorazarre ekimena

Antolatzaileak: Usurbilgo Sagardo Egunaren lagunak elkarte, Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, Noaua Kultur Elkarte, Usurbilgo Sagastia E.M., Itaya Gazte asanblada, Aitzaga Elkarte, Sagardoa eta Sagarra Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte.

Apirilak 27, larunbata: Sagasti loretuetan barrena ibilaldia, Jakoba Errekondo paisajistarekin. Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatibatik abiatuta. Goizeko 09:30ean.

Maiatzak 7, asteartea: "Usurbilgo sagastien inbentarioa eta sagar ekoizpena" Ikerketaren aurkezpena. Leire Jauregi Nekazaritza ingeniariaren eskutik, Potxoenean. Ilunabarreko 19:30ean.

Maiatzak 18, larunbata: Berreskuratutako XVI. mendeko Dolare-baserria ezagutzeko bisita gidatua, Luis Alberdi arkitektoa eta Jakoba Errekondo paisajistaren eskutik. Aginagako Saria baserrian, arratsaldeko 17:00etan.

Maiatzak 19, igandea: 32. Sagardo Eguna, Usurbilgo plazan, egun osoz. Sutegin "Usurbilgo baserrietako dolareen argazkiak" erakusketa.

Maiatzak 23, osteguna: Usurbilgo sagarkien dastaketa: Sagar-dultzea, muztioak eta sagardoak, Guillermo Castaños enologoaren gidaritzapean. Aitzaga Elkarte, ilunabarreko 19:30ean.

Ekainak 1, larunbata: Sagastien udako inausketa ikastaroa, teorikoa eta praktikoa. Aitor Etxeandia Nekazaritza Ingeñariaren eskutik, Potxoenean, goizeko 09:00etan.

3

Ostirala

22:00

Sutegi Kultur Etxeko Auditoriumean

Zinema "Bypass"

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkarte • **Iraupena:** 98 min.

Sarrerak: 3 € alde zuzeneko Lizardi dendan eta 3 € egun berean

Zuzendaria: Patxo Telleria

Aktoreak: Sara Cozar, Barbara Goenaga, Gorka Otxoa, Itziar Atienza, Mikel Losada, Aitor Mazo.



Maria bihotzetik gaixo dago eta hiltzera doa. Xabi, lagun bat, Bartzelonatik etorriko da azken agurra ematera. Bidean, Maria beraz maiteminduta dagoela jakiten du, eta pozteko, gezurra esan eta bera ere hala dagoela kontatzea erabakitzen du. Baina Maria ez da hiltzen, eta Xabik bikote-bizitzaren plantak egitera behartuta ikusten du bere burua, atsekabeak Mariaren bihotz ahularekin amai ez dezan. Egoera horretan, haurdun geratu berri den bere benetako neskalagunari, Bartzelonako neska bati, bizkar eman behar dio.

4

Larunbata

13:00

Joxe Martin plazan (Udaletxe aurrean)



Ikurriñari omenaldia

Ikurriñaren igoera, agurra eta omenaldia

Antolatzailea: Usurbilgo Udala

Debekatu egin zuten; ezkutuan gorde genuen urte luzez; Espainiako bandera zabaltzera eta gurtzera behartu gintuzten...

1977an kalera atera ginen usurbildarrak ikurriña legeztatu zuten egunean. 36 urte igaro dira eta geurea den Ikurriñak merezi duen lekua dauka udaletxeko balkoian. Orain, aldiz, erabat arrotza zaigun Espainiako bandera jartzera behartzen gaituzte. Inposaketa guztien gainetik, merezi duen begirunea eta lekua eskainiko diogu Ikurriñari. Geurea delako. Ekitaldian, txalapartariak, bertsolariak eta dantzariak izango ditugu. Herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu ekitaldian parte hartzera eta egun horretan bakoitzak bere balkoian Ikurriña jartzera.

4

Larunbata

11:00

Artzabal aretoan

"Pyrenaeus" sarea programaren aurkezpena eta II. Auzomintegien aurkezpena

Antolatzailea: Ganbo Iturri KE

4

Larunbata

22:00

Sutegi Kultur Etxeko Auditoriumean



Emanaldia Petti, Harkaitz Cano eta Joxan Goikoetxea "Gau beranduan" ikuskizun musikal poetikoaren estreinaldia

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea

Sarrerak: 8 € alde zurreratik Lizardi dendan eta 10 € egun berean

Eraldatu egiten dira paisajeak gau-beranduan. Eder zena beldurgarri bihurtzen da eta beldurgarri zena eder. Giza-piztiak ere berdin: izango da sosegua bila erretiratuko denik eta baita ehizakiaren xerka abiatuko denik ere.

Egunak utzitako nekeak ez du disimulurako tarterik uzten gau-beranduan. Maitaketa, konspirazioa eta sabotaia zainetan daramaten istorioak. Kantu eta poema zaharrak, bertsoak eta emanaldirako espreski ondutakoak. Malenkoniak bai baitu bere amorrua. Eta amorruak bere malenkonia. Mihise gaineko orban beltz batetik abiatzen den margolaria bezala, hari zerbaiten itxurantz emateko gero. Gau-beranduan eta ilunpean bihotzean. Egunsentia urratu arte.

5

Igandea

Andatza mendian



Andatza Eguna

Antolatzaileak: Zizurkilgo Udala, Usurbilgo Andatza Mendi Elkartea eta Usurbilgo Udala

Egitaraua 11:00 Hamaiketako: salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.

12:00 Herri kirolak eta jokoak haurrentzat eta helduentzat

14:00 Bazkaria (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa banatuko dira.

Goizean zehar, erromeria: trikitaliak eta bertsolariak.

5

Igandea

15:00ak arte



VI. TIPI-TAPA Pintxo ibilbidea

Antolatzailea: Hurbilago Usurbilgo Merkatari eta Ostalarien Elkartea

Babeslea: Usurbilgo Udala

Txipiroi Pintxo ibilbidea. Txipiroi pintxo bereziak honako taberna hauetan: Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Txapeldun eta Txiriboga.

8

Asteazkena

19:30

Sutegi Kultur Etxeko Auditoriumean



Iñaki Agirresaroberen "Kolorez kolore" diaporama

Sarrera: doan

"Kolorez-kolore" diaporaman zeruak eskaintzen dituen aukera paregabeak dira oinarri: kolore nabarra, gorria, grisa, urdinxka... Hainbat egunetan ateratako argazkiak dira eta horiekin denekin egindako muntaia bat da.

11

Larunbata

18:00



MunduMOB dantza koreografiatuaren grabaketa Usurbilen

Antolatzailea: Usurbil Zero Zabor • **Entseguak:** Maiatzak 3 eta 10 ostirala 19:00 Frontoian

MunduMOB Gipuzkoako herriak zeharkatuko dituen ekimena da. Maitzaren 4an Orendainen hasi eta ekainaren 8an Donostian amaituko da. Iraunkortasunaren mezua du oinarri, Mundua, aurreko belaunaldiak jaso zuten aukera berdinekin jasotzeko eskubidea daukagu guztiok, eta eskubide hori berma dadin, hurrengo belaunaldiei mundua jaso dugun aukera berdinekin uzteko betebeharrak daukagu.

Mezu hau kanta koreografiatu batekin aldarrikatuko dugu. Herritar orok parte hartzeko aukera izango du.

11

Larunbata

22:00

Sutegi Kultur Etxeko Auditoriumean



Antzezlanak: Hil arte Bizi

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea

Zuzendaria: Begoña Bilbao • **Aktoreak:** Iker Galartza, Sara Corzar, Joseba Usabiaga

Sarrerak: 8 € aldeztatik Lizardi dendan eta 10 € egun berean.

Hil arte bizi adiskidetasunaren mugen inguruan egiten den hausnarketa bat da. Nacho, Angel eta Maria. Bi gizon eta emakume bat eta jakina... gutxienez pare bat maitasun istorio. Hiru lagun, betiko lagunak, betirako lagunak... edo ez. Zerbait gertatuko da. Larria izango da beraien adiskidetasuna kolokan jarriko badu. Zer egingo zenuke zure bikoteak zure lagun onenarekin alde egingo balu? Biei barkatuko zenieke? Bietako bati? Zeini? Eta heriotza tartean bada... dena ezberdin ikusten da? Edozer barka zenezake maitasunagatik? Eta adiskidetasunagatik? Min egitea baino egia ezkutetzea hobea da? Zein da zure aukera? Hil arte bizi.

Hil arte bizi heriotzaz hitz egiten duen komedia eta adiskidetasunaz jardungo den tragedia da. Bizitzeko gogoaz ari den tragikomedia.

13

Astelehena

19:00

Potxoenean



Hitzaldia Nakbari buruz

Antolatzailea: Palestinaren aldeko taldea

Hizlaria: Jesus Artetxe Eskisabel • **Hizkuntza:** Gaztelania

Maiatzaren 15ean, asteartean, palestinaren Nakba berriz ere ekarriko dugu gogora haren 64. urtemugan. Nakba arabierazko hitzak "hondamendia" esan nahi du eta palestinaren exodoa izendatzeko erabiltzen da. Ekitaldi ezberdinak izango dira herrietan, Usurbilen hitzaldia antolatu dugu.

15

Asteazkena

Kaxkoan



San Ixidro Eguna

Baserritaren eguna ospatzeko egitaraua

10:30 Meza Nagusia Salbatore Elizan

Ondoren, hamaitakoa eta herri kirolak frontoian

14:30 Bazkaria Artzabalen. Txartelak Alkartasuna Kooperatibaren salgai - Prezioa: 25 €

Txartelak erosteko azken eguna maiatzak 11


18:30 Herriko erraldoi konpartsarekin pintxo-poteoa

16

Osteguna

19:00

Sutegi Kultur Etxeko Auditoriumean



Jose María Setien hitzaldia

Bakea, Justizia, Egia; etika edo politika?

Antolatzailea: Ganbo Iturri Kultur Elkarte

Bakea, Justizia, Egia; etika edo politika? Bakea, ekintza edo prozesua? Berradiskidetzaren eraikitzea, gizarte oinarritik edo gailurretik. Berradiskidetzaren eta Justizia, aurkariak al dira? Egia amankomuna, egia partzialen batuketara neutrala? Gatazka politikoaren egia edota sufrimenduaren egia. Egia eta Erantzukizuna. "Toleragarriak diren gezurren gaineko itunak" behar al dira bizikidetzaren sendotzeko?

19

Igandea

Kaxkoan



XXXII. Sagardo Eguna

Antolatzailea: Sagardo Egunaren Lagunak

Aurten, Sagardo Egunaren XXXII. edizioa ospatuko da. Goizean zehar, frontoian Herriko baserriak eta beste sagardogileak izango dira, Dena plazan Gipuzkoako sagardogileen elkartearen postuak jarriko dira eta Askatasuna plazan Eusko Labelean sartuta dauden sagardoak dastatzeko aukera izango da. Pintxoak dastatzeko aukera izango da.

11:30 Hasierra ekitaldia

12:00 Botatzaile txapelketa

Bazkalondoan, txaranga

17:00 Erromeria frontoian

20-24

17:00

Zubietako Frontoian



Zubietako Aste kulturala

Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso elkarte

Maiatzak 20 astelehena: Tailerra: eskumuturrak, txapak, kareta,...

Maiatzak 21 asteartea: Herri kirolak. Altxor bilaketa.

Maiatzak 22 asteazkena: Jolas ludikoak eta apar jolasak

Maiatzak 23 osteguna: Puzgarriak eta giza mahai futbola

Maiatzak 24 ostirala: Musika eta antzerki emanaldia. Txiki disko eta karaokea.

25

Larunbata

19:00

Mikel Laboa plazatik irteera



Kantu-jira kalez kale

Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea • **Laguntzailea:** Usurbilgo Udala

Nori zuzendua: herritar orok parte har dezake

Usurbilgo Kantu Taldea gogoz ari da euskal kantak abesteko eta tarfe alaiak pasatzeko biltzen. Denok gonbidatuak gaude haiekin batera abestera.

KULTUR AGENDA 2013ko maiatza

	Ostirala 22:00 • Sutegin	ZINEMA "BYPASS"	3
	Larunbata 13:00 • Joxe Martin Plazan	IKURRIÑARI OMENALDIA	4
	Larunbata 11:00 • Artzabal aretoan	"PYRENAEUS" EN AURKEZPENA	4
	Larunbata 22:00 • Sutegin	EMANALDIA: PETTI, HARKAITZ CANO ETA JOXAN GOIKOETXEA	4
	Igandea 11:00 • Andatza mendian	ANDATZA EGUNA	5
	Igandea 15:00 arte	VI. TIPPI TAPPA TXIPIROI PINTXO IBILBIDEA.	5
	Asteartea 19:30 • Potxoenean	USURBILGO SAGASTIEN INBENTARIOA ETA SAGAR EKOIZPENA	7
	Asteazkena 19:30 • Sutegin	IÑAKI AGIRRESAROBAREN DIAPORAMA	8
	Larunbata 18:00	MUNDOMOB DANTZA KOREOGRAFIATUAREN GRABAKETA	11
	Larunbata 22:00 • Sutegin	ANTZEZLANA "HIL ARTE BIZI"	11
	Astelehena 19:00 • Potxoenean	NABKARI BURUZKO HITZALDIA	13
	Asteazkena Egun osoko jaia	SAN IXIDRO EGUNA	15
	Osteguna 19:00 • Sutegin	JOSE MARIA SETIENEN HITZALDIA	16
	Larunbata 17:00 • Saria baserrian	BERRESKURATUTAKO DOLARE- BASERRIRA BISITA GIDATUA	18
	Igandea Egun osoko jaia	XXXII. SAGARDO EGUNA	19
	Zubietako frontoian 17:00	ZUBIETAKO ASTE KULTURALA: TAILERRAK, TXAPAK, KARETAK...	20/24
	Osteguna 19:30 • Aitzagan	USURBILGO SAGARKIEN DASTAKETA	23
	Larunbata 10:30 • Zubietan	OLATU TALKA: ORIA IBAIAREN GARBIKETA	25
	Larunbata 19:00 • Mikel Laboa Plaza	KANTU-JIRA: KALEZ KALE	25
	Larunbata 20:00 • Artzabal Tabernan	OLATU TALKA: TALKALIVE AZKAITER PELOX BAND	25
	Igandea 09:00-16:00	OLATU TALKA: ZUBIETAKI IBAETARA ZIKLOBIAN	26
	Astelehena 17:00 • Ikastola erdiko aretoan	IKASTOLAKO BERTSO JAIALDIA	27
	Asteazkena 18:30 • Sutegin	IKASTOLAKO KANTAGINTZA SAIOA	29
	Ostirala 22:00 • Sutegin	ANTZERKIA: EUSKARAREN ESPEKTAKULUE	31

IKASTAROAK 2013ko maiatza

Larunbata • 18:00 • Udarregin	PATINAK	4-11-18-25
Astelehena • 17:00-19:00 • Gaztelekuan	MAKILLAJE IKASTAROA	6

ERAKUSKETAK 2013ko maiatza

17:00-20:00	EUSKAL DANTZETAKO JANTZIAK	maiatzak 5 arte
16 eta 17 18:00-20:00	USURBILGO BASERRIETAKO	16/19
18 10:00-14:00	DOLAREEN ARGAZKI ERAKUSKETA	
19 Egun osoa	BURUHADIEN ERAKUSKETA	27/31



Usurbilgo Udala

Soziokultura Saila
Tel. 943 371999 • kultura@usurbil.net
www.usurbil.net



Hizkuntza eskubideen urraketak salatzen BUZOIAK:
Udaletxean • Potxoenean • Kiroldegian
Noauan • Urbil Merkataritza Gunean
www.euskararentelefonoa.com



Usurbil
osakura, atez, atez
Tel.: 900 776 776
www.usurbil.net/atezate

IKASTAROAK

"PATINAK" IKASTAROA

Noiz: 4, 11, 18 eta 25 Maiatzeko larunbatak • **Ordua:** 18:00

Non: Udarregi ikastolako patio borobilean

Nori zuzendua: guraso eta seme-alabentzat, baita ere, bakarrik etorri nahi dutenentzat.

Izena emateko epea: maiatzak 1etik 3ra bitartean, goizez 9:30etik 11:00etara, telefono honetan: 609 413 883

Prezioa: familiako 5 € (diru honekin amaieran merienda egingo da)

Antolatzailea: Einean guraso eskola



MAKILLAJE IKASTAROA

Noiz: Maiatzak 6 astelehena • **Ordua:** 17:00 – 19:00

Non: Gaztelekuan

Nori zuzendua: DBH 2 eta DBH3

Izena ematea: Gaztelekuan

Prezioa: 1 €

Irakaslea: Miren Ezeiza

Antolatzailea: Gaztelekua



ERAKUSKETAK

EUSKAL DANTZETAKO JANTZIEN ERAKUSKETA

Noiz: Apirilaren 27tik maiatzaren 3ra

Non: Sutegi Kultur Etxeko erakustaretoan

Orduetgia: 17:00-20:00

Antolatzailea: Usurbilgo dantza taldea

USURBILGO BASERRIETAKO DOLAREEN ARGAZKI ERAKUSKETA

Noiz: 16-19

Non: Sutegi Kultur Etxeko erakustaretoan

Orduetgia: 16 eta 1718:00-20:00

1810:00-14:00

19Egun osoa

Antolatzaileak: Usurbilgo Sagardo Egunaren lagunak elkarte, Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, Noaia Kultur Elkarte, Usurbilgo Sagastia E.M., Itaya Gazte asanblada, Aitzaga Elkarte, Sagardoa eta Sagarra Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte.

BURUHANDIEN ERAKUSKETA

Noiz: Maiatzaren 27tik 31ra

Non: Sutegi Kultur Etxeko erakustaretoan

Antolatzailea: Hitz Aho Guraso Elkarte

UDAL LIBURUTEGIA



Astegunetan 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 19.30

	6	7	8	9	10	●	●
	13	14	15	16	17	●	●
Itxita	20	21	22	23	24	●	●
Goizez	27	28	29	30	31	●	●

Sutegi Eraikina • Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil

Tel.: 943 360 692 • www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua



Zuen deialdiak zabaltzeko,
bidali proposamenak
hilaren 15a baino lehen
kultura@usurbil.net helbidera.

25

Larunbata

10:30

Zubietan



Olatu talka: Oria ibaiaren garbiketa

Antolatzailea: Olatu Talka

Zubieta inguruko ibai zati bat auzolanean garbituko da bertan, Donostia, Zubieta, Usurbil, Lasarte eta Orioko hainbat eragile eta herritarrek parte hartuko dutelarik. Erreka garbitu ondoren bertso emanaldia eta jateko zerbait egongo da: Parte-hartzea irekia da.

Talka!ve: Azkaiter Pelox Band

20:00 Artzabalgo Tabernan

Zuzeneko musika zirkuitua. Olatu Talkaren egunetan zehar 100 kontzertu inguru emango dira leku ezberdinetan.



26

Igandea

09:00-16:00

Olatu talka: Zubietatik Donostiara Ziklobian

Zubietatik Ibaetara N1 errepidea oinezkoiei, txirrindulariei eta hurbildu nahi duen edonori irekiko zaie, egun batez motordun ibilgailuak beste bide batetik joango direlarik. Ibilbidean zehar hiru gune nagusi egongo dira: Zubieta, Añorga eta Ibaeta. Bertan hainbat jarduera egongo dira: musika, dantza, jan/edana, haurrentzat tailerrak, ipuin kontaketa, errebote partidak... Usurbildik Zubietara errepidez hurbildu daiteke eta Ziklobiarekin bat egin.

27

Astelehena

17:00

Udarregi ikastolako erdiko aretoan



Ikastolako Bertso jaialdia (LH5 eta LH6)

29

Asteazkena

18:30

Sutegi Kultur Etxeko Auditoriumean

Ikastolako Kantagintza saioa (HH5 eta LH5)

31

UDARREGI IKASTOLAREN
ASTE KULTURALAREN BARRUAN

Ostirala

22:00

Sutegi Kultur Etxeko Auditoriumean



Antzerkia: Euskararen espektakulue

Sarrerak: 2 € alde zurreratik eta 4 € egun berean

Gidoia eta interpretazioa: Oihan Vega

Antolatzailea: Hitz-aho guraso elkarte

Zergatik praktikatu dugu sexua erdaraz? Nork daki euskaraz iraintzen? Eguneroko bizitzan, zergatik jotzen dugu horrenbeste erdarara?

Umorea eta sarkasmoa erabiliz, euskararen erabileraren inguruko hausnarketa egitera gonbidatzen du Oihan Vegak bakarriketa dibertigarri eta ironiko honekin, musikaz, kantuez eta zineaz lagunduta. Etengabe bilatzen du publikoaren parte hartzea, galdera zuzenak eginez eta jendearen artean giro ona eraikiz, elkarrekin, umorearen bitartez, euskarar buruzko gogoeta egiteko. Erritmo biziko antzezlan fresko eta ulerterraza da. Euskararen Espektakuluek ez du inor axolagabe utziko. Eta batez ere, une dibertigarri eta barregarri bat igarotzeko aukera aparta eskaintzen du bakarriketa honek.